




S. J. F. S E R R A N T I A S .  
Londra. Pub. by Bradbury and Carter. New York. 1874. (Imp. L. AG. S.)  
Fotokopiatuak. Elkarrekin.



# URGULL MENDIKO ETA MOTAKO GAZTELUA

## GIDA



Urgull Mendia eta Mota Gaztelua, dauden lekume geografikoarengatik, iragan historikoagatik, arboladi eta Hiriairen gaineko talaiengatik, leku bereziak bihurtuak daude bertako eta kanpokoentzako atsedean eta jolas-leku gisan.

1921a ezkerotzik, hurte horretan jabetu bait zen Urgull Mendiaz eta ondoko propietateaz Donostiako Udala, hiriko parte nagusizat hartua izan da. Egindako erreformen arauera, eraikuntza batzuk suntsituak izan ziren, 1925. urtean erreforma horiek amaitu zirelarik, izan ere urte horretan izendatu zituzten bertako eraikuntza eta murailak monumento arkitektoniko artistiko gisan.

Urgull Mendiaren eta Mota Gazteluaren azken historiak gloriako eta abandonuzko uneak ikusi izan ditu. 1963.ean egin zen errekerperatzeko eta kontserbatzeko saio bat, gazteluaren barruan Historia-Militar Museoa inauguratu zenean. 1987.ean, San Telmo Museoko, Mota Gazteluko eta Urgull Mendiko Udal Patronatua sortzen denean berriro planteatzen da errekerperazio eta abandono-zikloekin amaitzeko proiektu defingarri bat.



1988.ean, Xabier Albistur Marin Hiriko alkate eta Iñaki Gurrutxaga Armendariz, Patronatoko buru eragilea eta Donostiako Udaleko Kultur Zinegotziaren menpean, Patronatoko Batzordeak proiektu bat onartzen du eta horren arauera Urgull Mendia eta Mota Gaztelua Donostiako Parke-Museo nagusia izango da.

Datozen urteotan garatuko den proiektu honetan edertasuna, historia eta kultura etorriko dira bat: Donostiako hiritar eta kanpokoek atsedena dirako lekua izan dezaten.

1988.eko abuztuaren 3lean, Donostia suntsitu zuteneko 75. urteurrena eta murailak behera bota zituzteneko 125.a betetzen zirelarik eman zitzaion bukaera proiektuaren lehendabiziko faseari Hiriko Historia-Museoa ireki zutenean eta Mendia parke zaindua bezala jartzean. Errekuperazio hastapen hau prozesu ireki eta amaitugabetzat hartu behar da, amaitzeko borondateaz horniturik, donostiarrei beren Hiriko lekutik ederretenitakoa eskura emateko gogoarekin.

urgull Mendiaren plano-krokisa Motako  
anta Kruz Gaztelua eta Fortifikazioekin.

# SAN TELMO MUSEOIK MOTAKO GAZTELUK ETA URGULL MENDIKO PATRONATUA



- 1 «Arta».
- 2 Motako Kristoaren kapila.
- 3 Historia-Muscoa.
- 4 Eskalera.
- 5 H-M-eko Plataforma.
- 6 Fortifikazioa eta Iparraldeko atea.
- 7 Gobernariaren Kainoi-lekua (goikoa).
- 8 Gobernariaren Kainoi-lekua (behekoa).
- 9 Napolcoenen Kainoi-lekua.

- 10 Sutaustegia.
- 11 Xantioko Kainoi-lekua.
- 12 Santa Klarako Kainoi-lekua (goikoa).
- 13 Damen Kainoi-lekua.
- 14 Damen Kainoi-lekuko sutaustegia.
- 15 Santa Klarako Kainoi-lekua.
- 16 Bardocaseko Iturria.
- 17 Sutaustegiaren hondamenak.
- 18 Bardocaseko Kainoi-lekua.
- 19 Tiro-galeria.
- 20 Ikus-lekuko Babesa.
- 21-22 Espanochiren HARRIESIA.
- C Ingelesen Hilerria.
- Pasco Berria.
- Gaztelura Bidea.

### I.- Leku-datuak.

Gaztelua Urgull mendia tontorrean aurkitzen da, hiririk Iparraldeko dagoen harri-talde horren gailurrean, itsaso paretik 120 metroara, I.E.-H.M.-ranta zuzendurik daudelarik mendiaren ardatz handieneko 800 metro eta txikieneko 400 gutxigorabeherakoak. Aldapak erpinak dira eta Ipar, Ekialde eta Mendebaldetan itsasoarekin egiten duten topo amildegi bihurtuz. Hegoaldetik bat egiten da hiriarekin lur zati batez, aintzinean hareatza izan bait ziren eta orain horietatik hasten dira karrika luze eta zabalak Donostia denaren plaza eta lorategiak mugatuz.

Mendia hondar-harrizkoa da, estratifikazio elkartuan Hego-Iparrerunzko norabidean okerturik, eta horrela harri gorria agertzen da Iparraldean eta alderantziz Hegoaldean, zeren hor, landareza eta belartzak estalia bait du eta arboladia da nabarmena.

Badaude bide batzuk mendiraino ailegatzeko: zaharrena, kanpandorreko kaletik ekiten diona da, Santa Maria eliza ondotik bi norabiderekin: eskubikoa Santa Teresa izena daraman estradatik, izan ere halako konbentu ondotik igarotzen bait da; bestea, eskereruntza, pendizean dagoen etxarte batetik ekiten diona, eta ondoren zigzag-ibili ondoren estradetik, Gazteluko goira iristen da Hegoaldeko sarrera zeharkatu ondorenean.

Beste bide batek Paseo Berriko lautik ekiten dio eta lehenago aipatu dugun estrainekoarekin bat egiten du Ingelesen Hillerriaren parean, pinudi kurioso bat zeharkatu ondoren eta Gazteluko goian amaitzen du Iparraldetik sartuta. Paseo horretatik ekinez gero eta bertan baina amaieran, badago beste sarrera bat. Apaizen Paseabidetik bat eginez, Gaztelura eramaten duena.


## II.- Historia-datuak

XII. menderraino joan behar gaitzke Gazteluaren zaharraz jakiteko. 1150 urtean, nafarrak nagusi zirenekoan Antso Handiak Urgull mendiaren gailurrean defentsarako talaia eta herriaren inguruan lehendabiziko hesia eraiki zituen.

Nafarroako Antso Indartsuak, berreraiki zuen eta indartu era berean 1194ean, beranduago Alfontso VIIIak hobekuntzari eta Gaztelua inguratzeari ekin zion.

1471ean, frantsesek eraso egin zuten Donostiaren kontra, eta Errege Katolikoek bertan aldaketa batzuk egin zituzten are gehiago indartuz, eta horretan diru ugari xahutuz.

XVII mendean Urgull mendian ziuadela bat eraikitzen da, Gaztelua izanik defentsa-punturik balioarriena, guzti hori Espanochi injinariaren lanen arauera, baina bukatzen ez delarik




Santa Kruz Gaztelu eta Urgull mendiko eta Donostiako Plazako Eskema, 1476 eta 1600 bitartean.

M: «Arra».—G: Santa Klarako Dorreoa.—P: Mollako Atea.—I: Ingentearen Kuboa.—B: Don Beltranen Kuboa.—F: Torranoaren Kuboa.—R: Torranoaren Kuboko Fortifikazioa.—F: Ikus-lekuko Plataforma.

(Ikus daitezke Villaturrielen Harresiak, Gaztelutik jeisten, Ekialde eta Mendebaldean).

1850 - 1890



Santa Kruz Gaztelu eta Urgull mendiko eta Donostiako Plazako Eskema, XVII mendean.

T: Santa Klarako Dorreoa.—E: Espanochiaren Harresia.—P: Mollako Atea.—F: San Felipeko babesak.—S: Xantioko Babesa.—M: Ikus-lekuko Plataforma.—H: Hornabekeak.—R: Fortifikazioa.—B: San Bartolome.—C: Santa Katalina.

1790 - 1850



Santa Kruzko Gaztelu eta Urgull mendiko eta Donostiako plazako eskema eta XVIII mendean zeharko bere eboluzioa. Babesak eta kanoi-jeituak.

F: San Felipeko babesak.—S: Xantioko babesak.—H: Hornabekeak. R: Fortifikazioa.

1688ean erabat txikituta geratu zen Gaztelua, tximista batek bete-betean harrapatu bait zuen sutaustegia eta geroenean berreraikitza lanetan ihardun zuen Hércules Torrelli injiniariak. 1719ean frantsesek berriro egin zuten eraso, Berwick Dukea buru zutelarik, eta horretan ingelesen untziteria agertu zen hiria itxiz. Orduan eraiki ziren berehala zenbait plataforma kainoi-lekuak egiteko, ondoren hobetuak izango zirenak, eta horrela ekin zieten defentsarako lanei betikotasun zigilua eman nahian. XIX mendea, 1813an hain zuzen, Independencia gudaren ondorio suntsitzaileak jasan zituen eta geroenean karlistadetan hiria alde hartzen du parte.



*Santa Krutzko Gaztelu eta Urgull mendiko eta Donostiako Plazako eskema, kainoi-lekuekin, 1800-1863a bitartean.*

Xantioko eta gazteluko Kainoi-lekuen artean ageri da napoleonen kainoi-lekua. Handik iparralderuntza Bardocasekoa; hegoaldean, Baratzetakoa edo Santa Teresakoa.

### III.- Erdi Aroko Gaztelua eta mendean zehar izandako aldaketak

Gaztelu zaharra forma koadrangeluarra izan zuen gaztelu klasikoaren, lau dorreoiarekin beren angeluetan, eta omeneko dorrearekin, hau ere koadroa, harrisi batez inguratutik eta Mendebaldera begira defentsarako murrailaz, zegokion sarrerako atarekin. Ondorenean aldaketa ugari egin zizkieten, baita Urgulleko beste fortifikazioei ere, nagusienak Carlos V enperadore zelarik gertatutakoak, suzko armentzakoak egindakoak.

1688an eta aurrerago aipatutako suntsipenaren ondorioz, berreraiki behar izan zuten, izugarrikeria horretatik Gazteluko Kristoa bakarrik salbatu bait zen, nahiz eta orduan hiriak berak era sofritu behar izan zituen kalteak. Berria zahararen zimenduen gainean eraiki zuten Gobernariaren gelentzako lekua eginik, kalabozoak eta errepostuentzako, eta era berean ekin zioten koartelaren eraikuntzari, XVIII mendean amaitu zutena, eta hortxe dago gaurregun Donostiako Historia Museoa.

Apurka-apurka defentsan zuen garrantzia galduz joan zen Gaztelua, gaur eraikuntza zahar hartatik hondarrak besterik ez dira geratzen: Hego gortinako harresian ikus daiteke urkamendi zaharra, XVI mendean eraikia gaizkileak ajustiatu eta jendaurreko lotsa pasa zezaten, geroenean Guda Karlistetan kanpaldorre gisa erabili zuten karlistak tiroka hasten zirenean populazioari gaztigatzeko.

XIX mendean galdua zuen zentzu militarra eta eraiki zuten Jesus Bihotz Sakratuereko Monumentua bere kapila eta guzti, lehenago Gobernariaren gelak izan zirenekoan, horretarako ere zenbait obra egin zutelarik.

### IV.- Gazteluko fortifikazioak

#### IKUS-LEKUKO BABESA

XVII mende aurretik leku horretan bazegoen, antza denez, plataforma edo lau bat, eta horrek lagunduko zieten itasoa eta Hiria zaintzeko ikus-leku horretatik.

Ikus-Lekuko babesa garrantzidun bihurtzen hasi zen, fortifikazio gisa, mende horren hasieran, Espanochi injiniariak portu eta Hiria babesarako proiektua aurkeztu zuenean, mendi Hegoaldetik itxiz eta XVI mendean Villateriek kapitainak eraiki saihetseko bi harresirekin bat eginez. Babesa ez zuten eraiki 1727.era arte, eta erabaki horretan lagundu zuten Berwick Dukeak egindako erasoan portunatu ziren kalteak, 1719an. Independencia guda Donostiaraino iritsi zenean eta frantsesak

hiriaren jabe zirelarik, Gazteluko fortifikazioa izan zen espainiar eta luso-ingelesen aurkako borrokari eutsi ziona, berauek Uliá mendian kokatuta, eta bertan altxa zen negoziazio bandera.

Babes hau nahiko ongi aurkitzen da; eraikuntza nagusia XVII mendekoa da eta tuneletiko pasoa, XVIII eko haserakoa.

#### XANTIOKO KAINOI-LEKUA

Leku hau, ezagunagoa Erreginaren Kainoi-Leku gisa, XVIII mendean eraiki zuten, Mollako Kainoi-lekua deitu ziotelarik ere, bere zeregina zera besterik ez bait zen, molla sarrera gordetzea.

Mende horretan bukatu ez ziren hainbat lami eman zioten hasera, baina frantsesak etorri arte ez zituzten amaitu, eta frantsesek horretaz aparte Gaztelua babesteko beste hainbat lan egin zuten.

Kainoi-Leku hau artilleria-plataforma, parapeto, kainoi-zuloez dago osaturik, XVIII mendeko erikuntza orain arte iraun duelarik. Plataforma gainean ageri da XIX mendean edo eraiki zuten artilleriarentzako leku baten hondarra.

#### GOBERNARIAREN BARATZEKO KAINOI-LEKUA

Izen asko ditu: Gobernari, Printze edo-ta Printzesarena, eta XVIII mendean eraiki zuten. Hasera batetan lurreko frentea besterik ez zuten gordetzen eta Xantioko kainoi-lekuaren Ekialde-Mendebalde luzean gordetzen zuten harresiarekin elkartzuta zegoen.

Gaurregun Kainoi-lekua ageri da kainoi-zulo eta guzti, parapetuarekin, aipatuako frentea gordetzeko. Beranduago itsasaldea zaindu behar zela ere kontutan hartu zutenean, XIX mendean zehar beste leku batzuk eraiki zituzten, oraindik ikusten direnak, eta esan behar garai hartan posizio ezinhobea zirela; mende horretan, dena den, aldaketa txikiak egin zizkitoten ere Kainoi-lekuari.

Bitan dago kokatuta Kainoi-leku hau, kainotegi goikoa, zaharrena; eta behekoa, beranduago egina, bere su-lerroa hobeto zaintzeko.

#### NAPOLEONEN KAINOI-LEKUA

Frantsesek eraiki zuten hiriaren jabe egin zirenean lurreko frentea eta portu sarrera zaintzeko.


Espainiarrek, ingeles eta lusoekin bat hiria hartu zutenean, 1813ko setioa indargabe utzi ondoren, Wellingtonen kainoi-leku gisa izendatu zuten. Gaurregun berreraikia dago, eta XIX mende haserako kainoi txikiekin, diotenez setio hartako partaideak.

#### DAMEN KAINOI-LEKUA

Behin, Kainoi-leku honen ordezkari bat edo dorretxo bat zegoen, Santa Klararen garita deitua. Espanochi injinariak, Villaturtulen harresiak elkartzeara proiektatu zutenean, horrela Gaztelua Hegoaldetik itxiz orduan pentsatu zuten kainoi-lekua, eta 1679an aitzurru zuten lur zati bat bertan kainoiak jartzeko. Hortik, Damen Kainoi-lekua.

Geroenean, XIX mende bukaeran, diosala moduan su egiteko kainoi-leku bihurtu zen, hirian erret-jendea zegoenekoetan.

#### I IBILBIDEA



→ Gaztelua bisitatzeko ibilbidea  
→ Ibilbidearen abiapuntua

#### SANTA KLARAKO KAINOI-LEKUA

XVIII mendearen lehen erdikaldean eraiki zuten, Damena baino beranduagoakoa da beraz, eta bestearekin elkartzuz Santa Klarako harressia sortu zuten.

Hasera batetan, portuko defentsan erabili zuten, geroago itsasoko frentean ere bai, horregatik artilleria piezak bi lekutan zuden banatuta, bata, Mendebaldera eta bestea, Ekialdera. Gaurregun ikusten da Kainoi-lekua baina kainorik gabe eta ikus-leku aparta da itsasoa eta Santa Klara uhartea ikusmiratzeko.

#### BORDACASEKO KAINOI-LEKUA

Santa-Klarakoaren moduan XVIII mendean eraiki zuten eta bere helbururik nagusia itsasoa gordetzea zen, inbaditzaileen indarrak lehorerratu ez zitezen. Altxera txikikoa da eta horregatik erabilgarria arrasoan botatuko kainoi-tiroentzako,

baina horrekin batera ikusgarria egiten zen bai itsasotik eta baita Igeldo menditik ere, haren menpean geratzen bait zen. 1863 urtean plazako harrisiak bota zituztenean lekua handitu zuten eta guardiarentzako eta polborarentzako tokiak egin zituzten, nahiz eta gaurregun hondatuta egon. XIX mendean aldaketa batzuk egin zizkioten.


## BESTE KAINOI-LEKU ETA FORTIFIKAZIOAK

Kainoi-leku horietaz aparte bazeuden Gazteluan defentsarako beste eraikuntza txikiagoak, baina hala ere defentsari osotasuna ematen ziotenak. Aipatu daitezke besteak beste: Hegoaldean, San Josekoa, Gaztelua baino apur bat beharaxeago, oraindik lekua ikusi daitekeelarik, zertxobait aldatuta azken urteotan egindako lanengatik. San Gregoriokoa, Gobernariaren Kainoi-lekuaren oinetan. Santa Klara goikoa, berreraikia eta Xantiokoarekin elkartuta harresi baten bidez. Baratzetako edo Santa Teresako, izen horretako konbentuaren alboan, desagertua erabat, baina garrantzia izan zuena, portu sarrera zaintzeko. Kainoi-leku hauetaz kanpo bazeuden beste zenbait eraikuntza mendian zehar sakabanatuta: sutastegiak, almazanak, koartelak etab., zeinak baliozgarriak bait ziren defentsa lanetan lagun egiteko.

## ESPANOCHIREN HARRESIA

Izen horrekin ezagutzen da injinari horren arauera XVII mendean eraiki zena. Bertatik guregana iritsi dena zera da: «Apaizen Ibilbidea» izena duen lekuan portu-gortina eta bera luzatzen zen Santa Klarako dorreoi zaharretik hasi Ikus-lekuko babeseraino.

### 2. IBILBIDEA



Harresi hau beste hainbat eraikuntzaren moduan ez ziren amaitzera iritsi: gaurregun portu begira dagoen gortina besterik ez da ageri eta zimenduen arrastoak Santa Teresa eta Ikus-lekuko babesaren arteko lurzatian.

## TIRO-GALERIA

Galeria hau defentsa eraikuntza moduan altxa zuten 1898 urtean estatu Batuekin gerra piztu zela eta soldaduen tiro-instrukziarako. Bazuen gainera, ondoan etxe bat tirogaiak gordetzeko, eta horrekin batera tiroa zaintzeko txabolak. Gazteluaren iparraldean dago kokatuta. Ingelesen Hilerritik gertu eta hori baino altuagoan. Aspaldidanik ez dago zerbitzuan.


## V.- Donostiako Historia-Museoa

### HISTORIA-MUSEOA

XV mendeko bonbardak aurkitzen dira eta beranduagoko kainoi modelu ezberdinetako montaitan erantsiak. Horietako asko eta asko Gazteluko fortalezakoak izandakoak. Aipatutako bonbarda horietan ikusgarria da Oldemburgoko Konterrian egindakoa (Alemanian), brontzezkoa, eta esan behar da bakartzat hartu daitekeela.

Armen gelan aro ezberdinetako bilduma dago, batez ere XV, XVI eta XVII mendeetako espatak, zabala eta osoa. Badaude ere arkebuzak, lantzak, albardak eta armadurak. etab.

### 3. IBILBIDEA



Gerra Zibilean Salan badaude arma eta hornidurak, horrelako gudetan erabilitakoak, eta horiekin batera koadro eta argazkiak bereizgarriak direnak, historikoki hartuta bederen, eta horietan parte hartu zuten pertsonaietak.

#### VI.- Jesus Bihotz Sakratuarekiko Monumentua

Badago tontorrean kapila bat, oso berria dena eta bertan nagusikiro Jesus Bihotz Sakratuaren irudi bat. Eraikuntza hau itxura zahararekin konparatuta ezberdina da, baita beste fortifikazioekin konparatuta ere.

Plataforma horretatik iritsi daiteke monumento azpian dagoen errezutokitxo batetara. Handik ikusmira ederra ageri da, batez ere hiria bere osotasunean begiratu daitekeelako eta baita ingurumariak ere.

#### VII.- INGELESEN HILERRIA

Urgull mendiko Iparraldean dago kokatuta, bera inguratzen duen bidearen erdialdean. Izen hori baldin badu zera honegatik da, bertan lehen guda karlistan ingelesen lejoan parte hartuz hil ziren ingeles ofizial eta bururen hainbat hilobi aurkitu direlako da, eta horiekin batera Independentzia gudan espainiarrekin aliatu egon zen ejertzitokoak ere. Hilobiak ez dira ingelesenak bakarrik, bertan badaude ere espainiar ofizial zenbaitezuenak.

Hildako ingeles artean Sir Richard Fleitcher injineri ospetsua dago, Portugaleko Torres Vedrasko fortifikazio lerratuaren egilea eta asko nabarmendu zena Donostia hartzeko lanetan 1813an, bertan hil zelarrik. Espainiarren artean ospetsuena Manuel Gurra mariskala da, Andoaingo frentean hildakoa 1837ko maiatzaren 23an.

#### VIII.- Iparraldeko leize-zuloak

Bardocasko kainoi-lekutik eta Ingelesen Hilerrirako doan bideko errebuelta batetan leize-zuloak daude, 1727an aurkitu zituztenak eta almatzen gisa erabili nahi izan zituztenak, eta baita babesleku moduan ere, izan ere beraien ahalmena ez da nolana hiko, 500 pertsona sartzeko adinakoa. Helburu hori medio Juan de Soubreville injinariak badirudi proiektu ederra egin zuela, nahiz eta horretarako lanak hasi baina amaierarik ezagutu ez zuten.

#### IX.- Motako Kristoa


1688 urtean gazteluko sutaustegia lehertu zenean, bazegoen han inork ez dakidala zenbat denboratik Motako Kristoren omenezko kapila bat: sumisiketaren ondorioz eta XVIII mendean sartuta gaur dagoen kapila eraiki zuten, berriki berriztatua.


Irudiaren jatorria ez da ezaguna. Badirudi XVI mendekoa dela.

#### X.- Gaztelura igotzeko ibilbideak


Mendirako bost sarrerak eta bera zeharkatzen duten bideek elkarrekin bat eginaz erraztatzen dute igoera. Gida honetan lau ibilbide agertzen dira, interesanteenak deritzogunak, izan ere ibilbidean fortifikatuta dauden eraikuntza guztiak sartu ditugu barrenean eta horrela bisitagarriak suertatu daitezke, edo-ta. Bestela orientazio gisa balio izango dute, bisitari bakoitzak gustokoen duen ibilbide egin dezantzat.

#### 4. IBLBIDEA






**1. IBILBIDEA**



**2. IBILBIDEA**



**3. IBILBIDEA**



**4. IBILBIDEA**

